



FLAMENKOA ETA BLUESA ESKUTIK HARTUTA

Bihar hasiko da Tolosandblues jaialdia, Raimundo Amador eta Ñaco Gonik emango duten kontzertuarekin 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-06-24

VIIURTEA 1.736 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



L.GARCIA

IITSASO LEUNDA TXIRRINDULARIA

«Pasa den urtetik hona jauzi handia eman dugu»

HERNIALDE Emakumeen Bira eta Tourra egin berri ditu; larunbatean Espainiako Txapelketan lehiatuko da Kantabrian 2



Goian, Abaltzisketan jolasean. Behean, Tolosan, Zerkausion izan zen bertso jaialdia. ESTI EZEIZA

HAURRAK ETA BERTSOA NAGUSI, BEZPERAN

ABALTZISKETA-TOLOSA San Joan suaren aurretik gaztetxoentzako ekitaldiak izan ziren nagusi atzo; gaur, San Joan Eguna izaki, eskopetariak eta Bordondantzariak hartuko dituzte herriko kaleak 4

Peñascal Fundazioak lanbide-prestakuntzako hiru kurtso eskainiko ditu

TOLOSA 16-18 urte bitarteko gazteentzat dira doako ikastaroak 5

Irailaren erdialdera arte iraungo dute Elorri pilotalekuko obrek

ALEGIA Teilatua bota dute, eta datozen asteetan hasiko dira egitura berria jartzen 6

Gero eta hurbilago dute leitzarrek Herriarteko Txapelketako finala jokatzea

LEITZA 10 tantoko aurrea hartu dute finalerdietan Uharteren aurka 7

“Xirimiri”
Txokolategia

Errementalari kalea, 40
20400 Tolosa

Telef. 943 67 52 23

E Elkarrizketa**ITSASO LEUNDA** Txirrindularia

I. GARCIA

«Jauzi handia egin dugu aurreko urtetik hona»

IMANOL GARCIA

Itsaso Leunda (Hernialde, 1984) denboraldiko une garrantzitsua erdian dago. Emakumeen Bira egin eta gero, amaitu berri du Tourra eta hurrengo lasterketa garrantzitsua gertu du. Larunbatean Espainiako Txapelketa du Kantabriar. Bere bigarren Tourrean 32. postua lortu du.

Zer moduzkoa izan da aurtengo Tourra?

Lau egunetakoa izan da eta nik uste dut azkenean zerbait egitea egin dela, hau da, bertan behera ez uzteagatik. Emakumeen Bira maila handiagoa izan du.

Tourrean zein helburu izan dituzu?

Ikastea izan da helburua. Saillkapen orokorra ez zen helburua, bakarrik euskaldunen eta espainiarren artean ahal nuen postu onena lortzea. Postuarena lortu dugu, hiru euskaldun egon baikara aurrean.

Debabarra Kiroldgi taldearekin parte hartu duzu. Taldeburuarentzat lan egin behar izan al duzu?

Ez dugu horrelako antolakuntzarik eman. Horrelako nazioarteko probetan hasieratik badakigu ez

garela saillkapen orokorrean lehenengo hamarretan egongo. Bakoi-tza noraino iritsi gaitezkeen ikustera joaten gara, nazioarteko tropelean ibiltzen ikastera... Asko aldatzen da, adibidez, Espainiako Kopan dagoen tropel txikitik, horrelako proba batean profesionalen lehiatzerara. Debabarrena puntako taldea da Euskal Herrian eta errespetua dizute, baina gero nazioarteko probetara joaten zara eta errespetu handia jartzen dute tropelean.

Eta nola nabaritzen da errespetu hori tropelean?

Talde batzuk izena dute, azpiegitura handia dute eta saillkapen orokorra eskuratzeko borrokan ari dira. Talde horietako txirrindulariek proba horiek prestatzen dituzte eta besteak gure bizitza egiten dugu eta denbora libre erabiltzen dugu prestatzeko. Alde hori asko nabaritzen da.

Abiadura horrelako proba batean askoz handiagoa izango da.

Bai. Guretzat zailtasuna etapa batean, kilometro kopurua baino, probaren eritimoa izaten da eta ea eritimo horri eutsiko diogun. Gure zalantza izaten zen etapa hasiera-

tik puskatuko zuten edo iritsi ahal izango ginen esprinean.

Etaparen batean aukerarik izan duzu?

Hirugarren etapan iritsi zen bat ihes eginda eta beste guztiak esprinean iritsi ginen, baina oso zaila da. Azken etapa esprinean lehenengo hartu nuen helmuga baino lehen zegoen bihurtzea eta esprinean hasi nintzen, baina erraz pasatu zidaten. Puntako talde horiek espezialistak dituzte esprinetarako, mendirako... eta etapa nolako den ikusita antolatzen dira. Tourrean hiru talde zeuden maila altukoak eta besteak maila bat beharago eunden.

Eta nola ikusi duzu zure burua horrelako tropel batean?

Uste nuena baino indartsuago. Ikustera joan naiz ea zer mailan nengoen. Nire entrenatzailearen eta nire ikuspuntutik oso justu iritsi ginen, negu gogorra izan dudalako, erorketak izan ditudalako eta azterketak prestatzen aritu naizelako. Baina nahiko ondo aritu naiz. Emakumeen Bira ikusi nuen mendateetan nahiko ondo nenbirela, aurrekoekin igotzen bainintuen. Tourrean errepidearen ego-

eragatik eta teknika faltagatik ezin izan nuen barruan nuen guztia eman etapa batzuetan. Beste batzuetan bai eta ikusi dut orain indartsu nagoela. Larunbatean Espainiako Txapelketa dugu eta ustez formaz ondo goaz eta ea maila ona ematen dugun.

laz Espainiako Txapelketa irabazi zenuen. Zer suposatzen du zuretzat lehiaketara txapeldun bezala joatea?

Igandean lehiatu nintzen azkeneko aldiz Espainiako txapeldunaren maillotarekin. Sekulako ilusioarekin noa Txapelketa berriz eta eronka bezala hartuko dut. Ea berriro ere lortzea posible dudana, hori bai, disfrutatuz. Gauzak ateratzen badira ondo eta ez badira ateratzen, ba, jakina denez, batek bakarrik irabazi dezake.

Horrelako proba batean, gainera, ez dago jakiterik zer gertatuko den.

Formaz ni ondo noa baina gero proban kontrolatu ezin diren gauzak gertatzen dira. Aukerak ikusten ditugu, baina gero ikusi behar zer gertatzen den.

Emakumeen Bira nola joan zen?

Saillkapena ikusita lortutako postua ez da ona. Halere, jarri genituen helburuak lortu dira. Mendateak ziren gure zalantzak eta hor aurreko taldean ibili naiz eta gustura. Ikusten duzu txirrindulari batzuk beste maila batean dardela, baina gero ikusten duzu zure maila zein den eta maila horretan egindakoarekin oso pozik nago. Gainera bigarren denboraldia da eta oraindik asko dut ikasteko. Aurreko urtean bigarren etapa ondoan ondoren etxera itzuli nintzen eta aurtengoan etapa guztiak egin ditut eta lehenengo taldearekin ibili naiz. Jauzi handia ikusi dugu, urte batetik bestera pila bat ikusi dugu eta hobekuntza bat izan dela.

Aurten, beraz, txirrindularitzan aritu zara eta triatloia alde batera utzi duzu.

Lehenengo urtean triatloia zen nire helburua eta horretarako prestatzeko txirrindularitzan aritu nintzen. Gero Espainiako Txapelketa irabazi nuen eta erabaki genuen aurtengo denboraldian txirrindularitzan bakarrik ariko nintzela, gehiago ikasten joateko. Datorren urtean ere txirrindularitzan ariko naiz.

Urmenetaren umorezko ikuspegia euskara ikasteari buruz

ERREDAKZIOA

Asisko Urmenetak hitzaldia emango du, gaur 19:00etan Villabonako Mintzolan. *Como aprender euskera en 40 años y un día... fácilmente* da hitzaldiaren izenburua. Mintzalaguna egitasmoaren eta euskalduntze-alfabetatze ikastaroen ikasturte bukaerara iritsi direnez, Villabonako eta Zizurkilgo Euskara Zerbitzuek antolatuta dute ekitaldia, bi egitasmo horietako partaide guztien lana saritzeko.

Umorea protagonista izango da hitzaldian. Titulua gorabehera, euskaraz izango da. Edozein joan daiteke eta sarrera doako izango da. Asisko Urmeneta marrazkilaria eta komikigilea da, baina komunikazioarekin zerikusi duen guztia maite duela esatea gustatzen zaio. Hitzaldian bertan garrantzia handia izango dute marrazkiek.

Blusen Eguna izango dute Zizukilen larunbat honetan

ERREDAKZIOA

Datorren larunbaterako, hilaren 27an, Zizurkilgo Pásuas plazan Blusen Eguna antolatuta du Festa Batzordeak. Herritar guztiak gonbidatuta daude plazan bazkaltzera. Norberak bere bazkaria eraman behar du. Festa Batzordeak mahaiak eta aukiak jarriko ditu eta sagardo barrikotea egongo da. Antolatzaileek blusak jantzita eramateko gobeitea luzatzen du.

Bazkaria 14:00etan izango da. Ondoren jokoak eta 18:00etan Bonberenea Txarangarekin poteoa festa giroa herrian zehar zabalatzeko. Bestalde, Festa Batzordeak gogorazten du ostegunero bilduten dela 19:30ean Atxulondo kultur etxean eta herritar guztiak gonbidatzen diete parte hartzera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Flamenkoa eta bluesa, eskutik, Tolosand blues hasteko

Tolosa » Modu ezinhobean hasiko dute bluesari eskainitako jaialdia; Raimundo Amador eta Ñaco Goñirekin.

ERREDAKZIOA

Bihar hasiko da Tolosand blues jaialdia Raimundo Amador eta Ñaco Goñik eskainiko duten kontzertuarekin (22:30, Plaza Berria). Musikari paregabeak dira.

Raimundo Amador sevillarrak maisuki menperatzen du gitarra eta Madrilgo Ñaco Goñi ere une honetan Espainiako aho-soinu jotozaille onenatarikoa da. Biek ala biek bluesa maite dute eta urteak daramatza musikari bikainekin elkarlanean. Amador, sevillarra izaki, flamenkoko artista entzute-

tsuekin aritu izan da: Enrique Morrente, Nacho Vega, Tomatito, Antonio Flores, Kiko Veneno, Remedios Amaya, Camaron edota Paco de Lucia.

Bestelako elkarlan bitxiagoak ere egin izan ditu, Björk artista islandiarrarekin jo izan du, esate baterako, nahiz eta elkarlanik entzute-tetsuena bluesaren erregearekin egindakoa izan zela esan daitekeen, B. B. Kingekin, hain zuzen.

Mestizajea

Gizon xumea dela diote, musikari fina. Kontzertuetan barruan duen jario hori atera ohi du eta behar bada horregatik da Espainiako musikari errespetatuenatarikoa.

Ez ditu inoiz bere erro flamenkoak ahaztu, baina bluesa eta rocka maite ditu eta maisuki uztartzen ditu, gainera.



Raimundo Amador bihar, osteguna, ariko da 22:30ean Plaza Berria. HITZA

Flamenkoaren eta beste musika mota batzuren arteko mestizajearen eragile nagusienatarikoa da eta horren adibide dira bi talde aitzindari: Veneno, Rafael anaiarekin eta Kiko Venenorekin egindakoa eta Pata Negra, anaiarekin osatutako taldea.

Malcom Scarpa

Ñaco Goñi bere aldetik, Malcom Scarparekin hasi zen bluesaren munduan. Scarparekin egindako lanaz gain, bestelako artistekin ere aritu izan da, hala ere.

2005ean Tolosand bluesen jo zuten Tonky Blues Banden partaide izan zen, baina bere aho-soinua beste hainbat talderen lanetan ere entzun ahal da: Loquillo y los Trogloditas, J. Teixi Blues Band... Tonky Blues Band utzita, hala ere, Malcom Scarparekin bueltatu eta Los Jockers taldea eratu zuten. Mama Motse, Caledonia Blues Band, Algeciras Blues Express, Armonica Cousa, Coo Jerks, Miguel Rios edo Le Mans taldeekin ere jo izan du. Bere blues-eko betiko taldea izango da, hala ere, Tolosan: Ñaco y los Buscavidas.

Biharkoa ez da izango Raimundo Amador eta Ñaco Goñik batera jotzen duten lehen aldia, blues jaialdi askotan hartu izan dute partea.

«Bluesa nire bizitza da, ez dakit beste ezer egiten, ezta nahi ere»

ÑACO GOÑI » Aho-soinu jotzailea

Tolosa » Ñaco y los Buscavidas taldeko kideak eta Raimundo Amadorrek bluesik onena eskainiko dute bihar.

REBEKA CALVO

Kontzertu bikaina izango da bihar Plaza Berria. Urteak dira Ñaco Goñi eta Raimundo Amadorrek ez zutelak batera jotzeko aukerarik eta horrexegatik «auskalo noiz jaisten garen taula gainetik». 1995. urtean ere gira bat egin zuten batera eta orduan batatz beste bi ordu eta laurden ematen zituzten kontzertuetan. «Ez gara nazkatzen, ezta aspertzen ere», dio Ñaco Goñik.

Zer ikusi ahal izango dugu bihar Tolosan?

Talde guztia goaz, Ñaco y los Buscavidas, hau da, Flaco Barral, Kapo Albuquerque, Armando Marce eta laurok. Betiko taldea gara, urteak daramatza bluesa egiten, betiko blues taldea gara, eta horixe egingo dugu, martxa handiko bluesa.

Betiko blues taldea, betiko lagun batekin...

Raimundo Amador aspaldiko laguna da bai, urteak daramatza batera jotzen eta ohore bat da guretzat. Entseatu baino, elkartu,



HITZA

zein tonutan joko dugun zehaztu, eta aurrera joaten gara, hori da-eta emanaldi polita egiteko modurik onena.

Betidanik jotzen duzu bluesa, 13 urterekin ikasketak uztea erabaki zenuenetik. Zer da zuretzat bluesa?

Bluesa niretzako guztia izan da beti, baina orain inoiz baino gehiago. Bluesa nire bizitza da eta ez dakit beste ezer egiten, ezta egin nahi ere. Nik jo ahal izateko bluesa izan behar du, gauza gehiago entzuten ditut, noski, baina nik bluesa bakarrik dakit jotzen.

Malcolm Scarparekin hasi zinen blues munduan, baina ordutik ez duzue harremana erabat eten, zerbaitetan ari al zarete orain?

Noizean behin elkartzen gara zerbait egiteko, nere blues brother-a da. Kontua da guk jotzen duguna haragi gordina bezalakoa dela eta

horregatik oso leku zehatzetara joateko deitzen digute, bluesarekiko benetako afizioa dagoen tokietara. Oso gordina da egiten duguna, ez dugu apaingarririk erabiltzen.

Ez da lehen aldia hona etortzen zarela, hemen gertu ere Zizurkilgo blues jaialdi izan zinen...

1990 eta 1994 urteen artean izan zen urterik bertan egon nintzeneko egunak kontaktuta ia 3 hilabete eman nituela Euskal Herria, batez ere Gaztetxeen zirkuituan.

Mini CD berri bat kaleratu duzu orain aste bete, abestiren bat entzun ahal izango dugu Tolosan?

Nireak diren bost kantu bildu ditut, nik kantatzen dut, kalitatea kentzen diona diskari... (kar, kar, kar), nire gitarrak eta baxuak sartu ditut baita, musikari bakarrak organoa eta bateria jo dutenak dira. Kantu bakar bat joko dut Tolosan, ea zer esaten duen ikusleriak.

Gabirondo Segaligako buru 49 punturekin

Gaztelu » Bigarren jardunaldian Asteasuko Juan Jose Lizaso izan zen azkarrena 3 minutu eta 22 segundorekin.

ERREDAKZIOA

Gazteluko Joxe Gabirondok jarraitzen du II. Euskal Herriko Nazioarte Erako Segaligako buru izaten 49 punturekin.

Sailkapen orokorreko bigarren postua, aldiz, Asteasuko Juan Jose Lizasok du 48 punturekin, eta hirugarrena Oartzungo Bixente Mitxelena da 47 punturekin. Laugarren postua Zaldibiako Miel Mari Jauregik du 44 punturekin. Nesken artean, aldiz, Legorretako Arrate Garinek jarraitzen du lehen postuan.

Bigarren saioa

Bigarren saioa pasa den igandean izan zen Donazarren eta bertan Lizaso asteasuarrak egin zuen markarik onena: 3 minutu eta 22 segundo. Bigarren Gabirondok egin zuen, 3 minutu 25 segundorekin, hirugarren Mitxelena, 3 minutu eta 31 segundorekin, eta laugarren Jauregik 3 minutu eta 52 segundorekin. Sailkapen nagusian, hala ere, aipatu bezala, Joxe Gabilondo da buru oraindik. Finala uztaillaren

5ean izango da Zaldibian eta bertan sailkatzen direnak Alemanian abuztuaren 22an eta 23an izango den Europako Finalean ariko dira. 10 gizon eta 5 emakume hartuko dute parte finalean, hain zuzen.

Lehen jardunaldia maiatzaren 30ean izan zen Udabean eta aipatu behar da epaileek jardunaldi bakoitzean egindako lanaren arabera banatzen dituztela puntuak. Saioz saio puntu hauek metatzen dituzte, eta azken saioaren ondoren, punturik gehien duen segalariak irabaziko du Almitza Segaligako antolatutako Euskal Herriko Nazioarte Erako Segaliga.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Setter txakurra aurkitu dugu Bidegoianen. Jabeak deitu dezala 652 718 751 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Garraio baliabideak.** Ezinduentzako scooter salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gurrildun aulkik elektrikoa salgai. 20 kilometrotako autonomia. 2.000 euro. Urtebeteko garantia. 605 771 607.



Atzo arratsaldean, bertso jaialdia izan zen Zerkausian; Abaltzisketan berriz, goizean, haurrentzako jolasak izan ziren herriko pilotalekuan. E. EZEIZA

Haurrak eta bertsoa protagonista atzokoan

Aisia » Gaztetxoentzako jolasak izan ziren atzo goizean Abaltzisketan; Tolosan berriz, Xurdin eta bertso jaialdia izan ziren, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Asteheneroko atsedendia ostean atzo ekin zieten jaiari berriro ere Abaltzisketa eta Belauntzakoek. Txindokiren magalean dagoen herrian umeei zuzendutako ekitaldiak izan ziren goizean. 50 haur inguru bildu ziren frontoian, joku ezberdinetan parte hartzeko. Nahiko korri eta jolas egin ostean, hamaiketako egin zuten denek. Hurrengo ekitaldiaz gozatzeko, gauera arte itxaron behar izan zuten Abaltzisketakoek, orduan egin baitzuten San Joan sua.

Belauntzan berriz berandu hasi ziren atzo ekitaldiak. Patata tortila lehiaketa, mus txapelketa, zahagi ardoa... izan ziren. Gaur goizean, Abaltzisketa eta Tolosan bezala, Meza bereziak ospatuko dituzte San Joan eguna dela eta.

Asteburuko burrunbaren ostean, atzoko eguna nahiko lasaia izan zen Tolosan. Dena den, izan zen zer eginik. Sortzez Garbia plazan jolasten jarraitzeko aukera izan zuten haurrek, jolas parkeak bertan jarraitzen baitu. Arratsaldean,

toki berean, Xurdin taldekoak han izan ziren beraien emanaldia aurkezteko. Haurrek harriduraz eta gustura entzun zituzten pertsonaia honen istorioak. Ondoren bertso saioa izan zen Zerkausian. Laz ospatu zen estreinakoz sanjoanetako bertso jaialdia, eta izan zuen arrakasta ikusita, aurten errepikatzea erabaki dute. Atzokoan, Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Bixente Gorostidi, Mikel Artola, Aitzol Barandiaran eta Jokin Soraluze izan ziren taulagainean. Gai-jartzaile lanetan Iker Iriarte aritu zen.

Gaur San Joan eguna izanik, eskopetariak eta Bordondantzariek hartuko dituzte Tolosako kaleak. Bestalde, festaren barruan, Tolosako Musika Bandakoek emanaldi berezia eskainiko dute Berdura plazan, 13:00etan.

Helduenak ere festan murgilduta

Urtero bezala, Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteok toka txapelketa antolatu zuten joan den

iganderako. Beraien punteria nolakoa den erakutsi zuten, San Frantzisko pasealekuan, Beotibar pilotalekuaren ondoan.

Eskualdeko San Joan sari handia zegoen jokoan, eta Tolosaldeko hainbat lagunek hartu zuten parte. Hauetan, irabazlea Harizpe elkarteok Jose Manuel Ortiz izan zen. Bigarren Anoetako Fidel Benito geratu zen, eta hirugarren Ibarrrako Isaias Gonzalez. Saillkapenean lehendabiziko geratu zen tolosarra berriz, Jose Manuel Ortiz izan zen. Bigarrena, Juan Zubeldia, eta hirugarrena Angel Izaguirre.



Atzo Xurdin, haurrentzako ikuskizuna izan zen Tolosan. E. EZEIZA



Errenteriako Fomentokoak garaile, berriz

XAKEA » I Gandean, herriko jaietako programaren barruan, XXXVI. San Joan Nazioarteko Xake Txapelketa / Enrique Pinedaren Oroimezko XXXIII. Saria jokatu zen Tolosan. Txapelketak 15 talde bildu zituen, Gipuzkoa eta inguruko probintzietatik etorrita, eta Kultur Etxeko areto nagusia erabat bete zuten. Txapelketako faborito nagusiak, Errenteriako Fomento taldeak, ez zuten hutsik egin eta iazko txapela errepikatu zuten. Gauzak, ez zituen hain erraz izan Andoingo taldea oso gertu izan baitzuten azkeneraino. Hirugarren posturako ere oso borroka polita ikusi zen. Portugalete, Donostiako Fortuna, Abadiño eta Villabonak azken txandan erabaki behar izan zuten podiuma nork osatu. Azkenean, Portugalete izan zen saria etxeratu zuena. Taldeen saillapenaz gain, txapelketako jokalaririk hoberenarentzako saria ere egon zen. Fomentoko Txus Agirretxek irabazi zuen. HITZA

San Juan jai zoriontsuak opa diharazaguff

Hirusta ilepaindegia

Irurri auzoa, 4 - 20400 Tolosa
Tel. 943 24 37 07 - 671 478 362

KLISK Errebelazio digitala Bideotik DVDra

Iosu OTEAGI LASA
Argazkilaria

otaeguij@hotmail.com

TOLOSA
San Frantzisko 6

943 69 80 39
679 126 826

Ezkontzak • Jaunartzeak • etab.

Genero indarkeriari erantzuna

GENERO INDARKERIA • Igande goizaldean Tolosan emakume bat eraso zuen gizonen batek. Eraso hori salatzen Tolosaldeko Bilgune Feministak elkarretaratzera deitu zuen atzo. Bestalde, hilabeteak desageraturik zeraman Maria Puy Pereren gorpua aurkitu zuten herenegun, bere ustezko hiltzaileak hilketa onartu ondoren. Mundu Martxarako Emakumeen Plataformak elkarretaratzera deitu zuen atzo Euskal Herriko herri guztietan erailketa hori salatzen, eta Bilgune Feministak ere bat egin nahi izan zuen deialdi horrekin. Bi ekintzak salatu zituzten, beraz. E. EZEIZA



Jauregiren omenezko monolitoaren aurkako eraso gaitzesi dute

ERREDAKZIOA

Oscar Renedo PSE-EEren Tolosako Udaleko zinegotziak Legorretan dagoen Juan Mari Jauregiren omenezko monolitoak jasan duen eraso gaitzetsi du. Renedok azaldu duenez, «eraso honekin, ETAK biktimei eta hauek ordezkatzeko dutenari dien beldurra agerian geratzen da; biktimak gure kontzientzia dira eta herri honek desio duen askatasunaren irudia». Hala, Maixabel Lasa Jauregiren alargunari babesa azaldu dio Renedok.

Lanbide-prestakuntzako hiru kurtso eskainiko ditu Peñascal Fundazioak

Gizartea • 16-18 urte bitartekoei daude zuzenduta, eta doakoak dira; uztailaren erdialdera arte eman daiteke izena.

ERREDAKZIOA

Datorren ikasturterako ikastaroen eskaintza aurkeztu du Peñascal Fundazioak. Hain zuzen ere, lanbide-prestakuntzaren hastapeneko programaren baitan arlo desberdinetako hiru kurtso antolatuta dituzte.

Peñascal Fundazioak 14 urte daramatza Tolosaldea Garatzenekin elkarlanean gazteei zuzenduriko lanbide-prestakuntza eskaintzen; «Gure ustez, oso garrantzitsua da gazteek euren formakuntza ahalik eta gehien handitzea eta ondo prestatu egotea», azaltzen dute Peñascaletik.

Soldadura, mekanizazioa eta ostalaritza

Soldadura, txirbil-harroketazko mekanizazioa (tornua, fresatzeko makina, taladroa, CNC...) eta ostalaritza kurtsoak eskainiko dituzte

2009/2010 ikasturtean. Kurtsoak bi urtetan egiten dira, eta 2.000 ordu inguruko iraupena dute. Horietatik 500 inguru inguruko enpresetan eginiko praktikak izaten dira. Doakoak izaten dira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak finantzatzen baititu.

Formazioa praktikoa izaten da hein handi batean, baina klase teorikoak ere izaten dira, bai teknikoak bai eta lanbideak eskatzen dituen ezaugarrietan oinarritutakoak. Halaber, ikastaroan zehar, GESO (eskola-graduatu) titulua lortzeko ere prestatzen dituzte

ikasleak. Hala, programa arrakastaz amaitzen dutenek lanean hasi daitezke aukera dute, edo bestela Erdi Mailako zentroetan formazioarekin jarraitu.

16-18 urtekoentzat

Programa hauetan parte hartzeko 16-18 urte bitarte eduki behar dira, eta GESO titulurik gabekoak izan behar dira. Uztailaren erdialdera arte dago izena emateko aukera.

Zentroa bisitatu nahi izanez gero, edota edozein zalantza argitzeko, 943 67 61 61 edo 943 67 51 95 zenbakietara hots egin daitezke.

Laburrak

Asis Sarearen zortzigarren otoitzaldia izango da bihar

GIZARTEA • Asis Sarearen zortzigarren otoitzaldi bilkura izango da bihar, Klarisen komentuan, 19:30ean. 1.200 lagun biltzen dituen sarearen helburua, irekitzea da, herrietara, taldeengana eta pertsonengana zabaltzea.

San Joan jaiei buruzko lana ikusgai Udal Artxiboa

GIZARTEA • Tolosako Udal Artxiboa udal webgunean (www.tolosakoudala.net) Carlos Rilova historia-lariaren *La polvora de San Juan: Alardes y milicia en Tolosa 1456-1876* lana jarri du ikusgai. Herritar guztien eskura dago.

@ Eztabaidak eta inkestak.

Sar zaitez gure webgunean, eta parte hartu proposatzen dizkizugun eztabaida eta inkestetan. Esaterako: «Udan nora joateko asmoa duzu? Inguruan, Espainia, Europa, beste leku batera». Aukeraketa egiteaz gain, inkestetan iritzia sartzeko aukera ere baduzu. Eztabaidetan, Gazumeren inguruan, krisiari buruz edota genero indarkeriaren inguruan eman dezakezu zure iritzia, besteak beste. Sar zaitez gure webgunean, eta parte hartu!

www.tolosaldeko-hitza.info



Zure negozioa ulertzen dugu

Ibilgailu Komertzialen Gama

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14 - A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com

ZERBITZU BULEGOA

AIXA

Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1.esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuarte@euskalnet.net

parafarmazia
farmadenda

Gora sanjoanaki!

- Haurrentzako nutrizioa
- Dermokosmetika
- Kontsultak - DIETAFACIL
- Automakillaje ikastaroak

lurre auzoa, 7
Tolosa
Tel.: 943 57 95 28
farmadenda@euskalnet.net

Elorri pilotalekuko teilatua bota ondoren, datozen asteetan egitura berria jartzen hasiko dira

Alegia » Irailaren erdialdera arte iraungo dute obrek; Udalak paretak margotzeko eta lurra garbitzeko dirua jarri du.

NEREA URBIZU

Haurren eskolako ikasturtea bukatuta, Alegiako Elorri pilotalekuko obrei heldu diete. Duela astebe-te inguru hasi ziren obrekin, eskolako garaia ia bukatzearekin batera. Hasiera batean uda osoan zehar (irailera arte) iraungo lukete lanek. Dirudienez, azkarrago bukatuko dute, bertako langileek esan duten moduan, baina ondoren paretak margotu eta lurra hobetu behar dute ere. Azken bi lan hauek Alegiako Udalak ordainduko ditu eta teilatua berriz, Zapatero Planaren diru laguntzarekin egingo dute.

Frontoia berez ez dute bota, teilatua aldatu bakarrak. Joan den astean garabi erraldoi batek teilatuko burnizko egitura bitan kendu zuen eta futbol zelaian dago orain guztia. «Hau guztia bota egingo dute, ez baitu ezertarako ere balio». Langileen arabera, «egitura erdoilduta zegoen eta beste materialak nahiko ustelduta». Datorren astean berria ekarriko dute. «Bi astetako kontua izango da». Hau guztia egiteko aurrekontua 215.920 eurokoa da.

Egitura berria egurrezkoa izango da eta ez burmizkoa. «Sendoa da, metro inguruko zabalarekin». Hauen gainean beste material bat jarriko dute, frontoia bera estaltzeko.

Barruan, berriz, paretak margotu behar dituzte, berdez, hain zuzen. Berez, langileek adierazi dute euren lana abuzturako bukatuta egongo dela, gutxi gorabehera, baina ondoren margotu egin behar da, eta horrez gain, lurra garbitu eta leundu. Horregatik obrak irailera arte luzatuko dira.

Frontoia, gimnasioa eta aldage-lak ezin dira erabili, iraila erdialde-



Pilotalekuak ez dauka teilaturik eta berriak egurrezko egiturak izango ditu, besteak beste. N. URBIZU



Egitura zaharra futbol zelaian utzi dute eta aurki kenduko dute bertatik. N. URBIZU

ra edo bukaerara arte. Printzipioz, Kultur Etxeko instalazio guztiak normal erabili daitezke.

Hormak, berdez

Orain arte, pilotalekuko zoruari hainbat kirol egiteko behar diren mugak zehaztuta zeuden margoak, baina kirol zinegotziak adierazi duenez, «hemendik aurrera saskibaloian aritzeko eta areto futbollean aritzeko murrak margotuko dituzte».



Teilatuaren itxura berria hau izango da. HITZA

Baliarraingo guraso elkarteak Urbasara ibilaldia antolatu du igandean

N. URBIZU

Datorren iganderako Baliarraingo guraso elkarteak haurrekin egiteko ekaineko ekitaldia antolatu du. Oraingo asmoa Urbasara joatea da, egunpasa. Horretarako 11:00etan abiatuko dira herritik.

Asmoa da bertan eguna pasatzea eta bazkaltzea. Bazkaria bakoitzak berea eramanaz egingo lukete bertan. Ondoren, jolasak egingo dituzte, haurrentzat eta baita gurasoentzat ere.

Baina eguraldi txarra eginez gero, ez dira Urbasara joango. Igeldora baizik, hona ere bakoitzak bere bazkaria eramanaz.

Laburrak

Cristian Herrera adituak hitzaldia emango du

TOLOSA » Etzi Cristian Herrera Salamankako (Espainia) unibertsitateko psikologia irakaslea Tolosan izango da hitzaldi bat ematen: *Bizitzaren, psikologia positiboa*. Kultur Etxean izango da 19:00etan. Bestalde, larunbatean psikologia positiboari buruzko ikastaro bat emango du 16:00etatik 20:30era bitartean. Informazio gehiago nahi izanez gero telefonoz dei daiteke: 943 118 669 edo 688 800 800 (formacionsatya@hotmail.com).

Herriko argazki zaharrenak ikusgai, jubilatuenen

ALEGIA » Hilabete osoan zehar Alegiako jubilatuen tabernan herriko argazki zaharrenak ikusteko aukera izango da. Herritarrak azaltzen dira gehienetan, gehienak festetako giroan daukela. Dirudienez, gehienak German Intxaustik ateratakoak dira, eta baita Ricardo bere aita zenarenak. Argazki zaharrenak 100 urte inguru ditu, eta beste batzuetan herritarrak zein diren ezagutu daiteke, 50. hamarkadakoak baitira. Kukurruken handi-handi bat ere azaltzen da baten batean, nahiz eta bistan ez egon.

Zinemara joateko prezio bereziak bi hiletan zehar

TOLOSA » Ekaina eta uztailako zine bonuak bi motakoak izango dira: edozein saiotarako (haur saioak barne) 12 euroan, edota 9 filmetarako, 9 euroan. Etzi eros daitezke leihatilan, 11:00etatik 13:00etara edo 17:00etatik 19:00etara. Asteburuan, berriz, zine saioen ordutegietan. Txartelak erosteko azken aukera uztailaren 2an izango da, ostegunarekin.

MATXINA

Etxekotresna elektrikoek konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

ELECTRICIDAD ELUSTONDO

- Argiztapena
- Inst. Elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak eta bakarkakoak
- Musika ambientalarentzat instalazioak, etxebizitza, denda..

lurre Auzoa, 4 • TOLOSA • Tel.: 943 67 23 00
Nafarroa etorb, 13 • Tel.: 943 88 95 71 • BEASAIN

Nafarroako Herri Artekoaren finala gero eta hurbilago Leitzarentzat

Pilota » Uhartaren bina berdin zuten Leitzak baina 10 tantoko alde ekarri zuten etxera. Orain itzulerako partida falta da.

ASIER IMAZ

Pilotan gorabehera handiko aste-burua bizitu dute leitzarrek. Frontisek antolatutako duen Lau t'erdiko Nafarroako Txapelketaren baitan, Ibai Bengoetxeak 22-7 galdu zuten Antxiaren aurka. Partida Amazabalen jokatu zuten ostiralean eta porrotaren ondoren leitzarrek agur esan dio txapelketari.

Itxaropena Herri Artekoan landatu du Leitzak, Uhartaren aurkako lehian aurrea hartu baitu.

Azkenik, Aurrerako pilotariak Saldiasen, Lizarran eta Orduñan ibili dira.

Leitza: 10 tanto aurretik

Nafarroako Herri Arteko Txapelketaren finalerdietan, Leitza eta Uhartek joaneko partidak jokatu zituzten larunbatean Iruñerrian.

Lezea-Eskudero 6-18 galdu zuten eta Garcia-Iriartek 20-22.



Amazabal pilotalekuan Herri Artekoaren partidak jokatu dira berriro. I.L.

Garaipenak Olano-Hernandorenaren eta Jaunarena anaien eskutik etorri ziren; 18-15eko eta 22-1eko emaitzekin.

Herri bakoitzak bi partida irabazi zituen, tantoen kontaketa egitea gelditzen zen amaieran: 10 tanto leitzarren alde.

Itzulerako lehiak Leitzan jokatu dira hilaren 27an. Amazabalen lau partida ikusteko aukera egongo da larunbatean. Lehena 10:00etan hasiko da eta ondoren beste hirurak jokatu dituzte.

Pakito Sagastibeltzaren hitzak

Aurrerako Pilota Elkarteko kideak larri ibili ziren Uhartaren. Izerdia kopetearen barna, urduritasuna hezurretatik ezin atera... Honela laburtu du esaldi batean Pakito Sagastibeltzak bertan bizitakoak: «Larri baina azkenean urak bere lekura etorri ziren».

Sagastibeltza alebinekin hasi zen izerditan, tantoak kontaktzeko partidak baitzen hau: «Ondo hasi ziren, 4-0 irabazten. Baina Herri Artekoan egin duten partidariak

kaxkarrena egin zuten ondoren. Ez zuten egun ona izandu. Gutxienez lehengo emaitza nahi genuen: 8 tanto egitea».

Bigarren partida infantilek jokatu behar zuten. Hauen garaipenarekin kontaktzen zuten Aurrerako kideak: «Lehen partidaren izerditan hasi baldin baginen, bigarrenarekin bihotza poteka eta belau pasitak ez dakit nola ibili ziren. Errez irabaztea espero genuen baina zer da eta 14-15 galtzen. Izerdian kopetan behera. Azkenean ez dakit nola, oso gaizki jokatu, baina 18-15 irabazi zuten».

Bana. Leitza bederatzi tanto atzetik ordea. «Gero Jaunarena anaia ateratzen eta horrek lasaitasuna eman zigun. Erakustaldia egin zuten. Jonek atzean jokatzen du Herri Artekoan eta bikain ibili zen».

Azken partida jokatu aurretik, 2-1eko emaitzarekin zegoen Leitza. Horretaz gain, 12 tantoko errenta zeramaten. Seniorretan porrot egitea aurreikusia baldin bazegoen ere, garaipena ia poltsikoan eduki zuten Garcia-Iriartek. Garciairen inguruan, azken uneko fitxaketa izandu dela aipatu behar

da: «Zaharrek zer egingo zuten ez genekien, Garciak nola erantzun zuten eta abar; baina denak aho zabalik gelditu ginen. Oso ondo ibili zen: sakatu ondo, pilota txarrrak altxa,... bi leitzarrek euren atzelaria egurtu egin zuten. Iriartek Txapelketan egin duen partidari osoena egin zuten, zalantzarik gabe. Bikain aritu ziren eta 20-19 jarri ziren aurretik. Irabazi egin behar zutela uste nuen nik. Orduan frontona dexente busti zen Uhartekoak botatzen zuten izerdiarekin. Gu infantiletan larri ibili baldin baginen, zaharretan eurak ibili ziren estu. Azkenean 22-20 galdu genuen baina tanteo oso onarekin: 10 tanto aurretik. Orain itzulerarako esperantza guztiak dauzkagu. Hori bai, oinak lurrean. Hemen ez dago fidatzerik».

Saldias, Lizarra eta Orduña

Ohiko Txapelketen dagokionez, Aurrerako Piloriak han eta hemen jokatu zituzten euren partidak asteburuan.

Lizarrako Txapelketan Olano-Tolosak finala galdu egin zuten Iribarria-Larrearen aurka: 13-18.

Saldiasen Jon Jaunarenak Mikel Iriarterekin jokatu eta irabazi egin zuten: 22-10. Bi leitzarrek Orduñan ere jokatu zuten asteburuan, oraingo honetan ordea elkarrean aurka. Jaunarena-Larriagak 22 eta 15 irabazi zieten Mendizabal-Iriarteri.

Sokataran Areso eta Iparraldeko Joku Torneoan bi leitzar aritu dira asteburuan

A. IMAZ

Herri kirol probak jokatu ziren iragan asteburuan. Areso eta Leitza ordezkaturik egon ziren eta egongo dira, izan ere, hilaren 27an beste hainbat proba lehiatuko dira.

Sokataran Areso laugarren

Maeztun (Araba) Euskal Herriko 640 kiloko Txapelketaren hirugarren eta azken jardunaldia jokatu zen. Bertan Areso 4. postuan gelditu zen, sailkapen orokorrean lortu duen postu berean. Hurrengo probak 600 kilotan jokatu dira. Lehena hilaren 27an Billelan (Bizkaia) izango da.

Iparraldeko Joku Torneoa

Hirugarren eta azken jardunaldian sailkapen nagusiak erabakita gelditu ziren Iparraldeko Joku Torneoan. Josetxo Urrutia bigarren gelditu da harrijasotze proban. Txinga-eroaten berriz hirugarren. Bigarren leitzarri dago-kionez, Miguel Angel Sukunzak lehen postua lortu zuten Txingeroate proban, nahiz eta azken jardunaldi honetan ez parte hartu.



San Joan bezperako ospakizunak

ARESO » Gure bi eskualdeetan hainbat herri ospatu zuten San Joan bezpera atzokoan. Ondo horien artean aurkitzen da. Ekitaldia arratsaldean jarri zituzten abian herriko plazan. Bertan 18:00etan jokuak egin zituzten: sokatira, zakuak, uztaiak, aulkia... Eguzkia gorde aurretik, 21:00etan, afaria burutu zuten. Herritar bakoitzak eraman zuten bere janaria, freskagarriak Guraso Elkarteak jarri zituen eta gainontzeko edariak Festa Batzordeak. Behin sabela bete ostean, dena prest gelditu zen ospakizun nagusirako. Izan ere 22:00ak aldera, San Joan sua piztu zuten Areson. A. IMAZ

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

BERRI ON BAT DUGU
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

TOLOSALDEAN
Zerbitzu
Ofizial Berria
BSH Talkleko
Markentzat

Interservice
Ubarburu pasealekua, 81-
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

Interservice
Servicio BSH al Cliente



24°
12°

GOIZA	EKAITZA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	23°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

San Joan jaiak

■ **Abaltzisketa.** 11:00etan meza, jarrera trikitixa eta hamaiketakoa, 13:00etan toka, 17:00etan pilota partiduak, jarraian Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariak, 22:30ean erromeria.
■ **Belauntza.** Meza nagusia San Jose ermitan, hamaiketakoa herriko taberna-jatetxean Mendizabal eta Zeberio bertsolariekin, 19:00etan Aimar Irigoien erakustaldia eta ondoren kostila jatea.
■ **Tolosa.** 07:00etan Alkate Soinua; 08:30ean Musika Bandaren Diana; 08:45ean txistularien Diana; 09:00etan dultzainarien Diana; 09:00etan txirrindulari probaren irteera; 09:30ean Plaza Zaharrean Alardea; 10:00etan Meza Nagusia; ondoren prozesioa; Trianguloan deskarga; 12:00etan batel finalak; 13:00etan Berdura Plazan Banda eta txistulariak; 16:45ean bezperak eta arrats otoitzak; Trianguloan azken deskargak; aurreakua; 18:00etan zaldi ikuskizuna; 19:30ean Jones Brother; 20:00etan Mc Jearas Band; 23:00etan su festa.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanenetan iritzien erantzunik.



Solstizio kontzertua Urkizun

TOLOSA • Urtero moduan, Et Incarnatus orkestrak Solstizio kontzertua eskaini zuen herenegun iluntzean Urkizun, Iraolako zuloan. Hamargarren urtea da emanaldi berezi hau egiten dutena, eta jendeak ez zuen hutsik egin hitzordun honetara. Aurtengoan, gonbidatu berezi bezala, Lakunza eta Fraile Iruñeko gaitariak, Bidart aita- semeak Baigorriko gaitariak eta

Ana Otxoa soprano nafarra izan zituzten. Kuba eta Argentinako doinuak, Inauteri eta sanferminetakoekin izan ziren entzungai, eta bertaratu zirenek ere parte hartu zuen Iparraldeko kantak abestuz. Sorpresa bezala, Iñaki Epeldek diseinatutako kamisetak oparitu zizkieten musikariei eta jendearen artean ere zozketatu zituzten. JOXEMI SAIZAR



harpidedun izateak badu saria

① 2 lagunentzako otordua

Adunako
Uztartza Jatetxean



UZTARTZA JATETXEA - ATERPETXEA
Herriko plaza, 7 • Aduna
tel.: 943 69 34 81

Uztartza


② 2 lagunentzako asteburua, gosaria eta zirkuitu termala



AISIA LEKEITIO
Santa Elena etorbidea z/g • Lekeitio (BIZKAIA)
<http://www.aisiahoteles.com>
tel.: 94-6842655



Aisia Lekeitio Hotelean



③ 4 harpidedunentzat disko bana

Mikel Laboa (1934-2008)
CD-DVDa



④ Produktu ekologikoz osaturiko otarra

Manttangorri
elkartearen eskutik

Tel.: 943 377 945 • Faxa: 943 376 383
www.manttangorri.net
manttangorri@manttangorri.net



PRODUKTU BIOLOGIKOKAK

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza